

JUAN MARTIN HIRIBARRENEK *ESKARAZ EGIA* (1858) ETA ERRANAK

Xabier Alzibar Aretxabaleta

Eskaraz egia: sarrera gisa

Eskaraz egia (laburduraz EE) hitz lauz idatzi eta Baionan argitaratu zuen Hiribarrenek 1858an, apezpikute giko inprimatzaile E. Lasserre baitan. Ez da berriz argitaratu. Tamainuz, ez da luzea ez laburra, bien artekoa (153 or.). Hiru partetan zatitua da; guztira 53 kapitulu, bakoitza 2-3 orrialdekoak. Inprimatze huts gutxi du.

Euskal literaturaren historialariek oso gutxi aipatua da; gehienek bizpahiru lerro baizik ez dute idatzi. Gehienek edukiaz zerbait esan dute. Apologetika moduko lana dela iritzi zion Villasantek (1979:166) eta hari jarraitu hainbatek (Sarasola:1970:113; Onaindia:1973:146; Mujika:1979:256). Beste batzuek erlijioaren historia dela iritzi diote (Lafitte 1941:51; Mitxelena 1988:131; Altuna eta al. 1997:XII). Apologetikatzat har daiteke agian, nahiz berezia den tonuagatik. Ordea, erlijioen historiatzat hartzea ez da oso zuzena. Erlijioen historiaz-eta ari den parte, II. partearen erditsua baizik ez da; eta gainera ez da erlijioen historia, baizik Jainkotzat edo profetatzat hartuak direnen nolabaiteko istorioa, hau da, Jesusekin konparantza bat, bai eta haien jarraitzaileak kristauekin, baina trufazko eta mespretxuzko konparantza. Bestalde, euskal literaturaren historialariok ez dute azaldu zergatik eta zertako idatzi zuen liburu hau Hiribarrenek.

Hizkuntza moldeaz eta estiloaz ere, gutxi idatzi dute. Lafittek dio neurtitzez baino hobeki idazten duela hitz laxoz, eta ongi idazten duela. Urkizuk, *Eskaldunak* (1853) baino arinagoa eta artifizialtasun gutxiagokoa dela *Eskaraz egia* (2000:340).

Transmisio urrikoa izan dela dirudi. Galdetzekoa da ea zenbateraino ezagutu duten literaturaren historialariek, hain lerro gutxi idazteko. Ez ote du horrenbeste merezi Hiribarrenek?

I. Eliza katolikoaren apologia, beste erlijioen eta ateoaren kontra

I.1. Badirudi bere oldez eta gustuz idatzi eta argitaratu zuela Hiribarrenek bere obra; “Propriété de l’auteur, l’abbé J.M. Hiribarren” dio kanpoko azalean. Egileak beharrezkotzat jo zuen, gehituz “Ez duenak nahi ikusi gaizkia nausitzen, egin beza hobeki” (EE 155).

Liburuaren izenburuak apologia asmoa nahiko garbi adierazten badu ere, zehatzago adierazten du sarreraren bukaerako pasarte honek:

“Gure herrietarat heldu da atze hainitz, eta heki darraikote asko haro gure artean nihoiz entzun etzirenak. Nahi nuke herritar baxhotxa jakitatez harmatu, hirriskua ethor orduko. Mintzaturen naiz eskaraz, erran nahi da garbiki, itzulirik gabe, nor nahi denek elenga nazaken bezala.” (XIII).

Artzainak bere artaldea zaindu nahi du kanpotik omen datorren arriskutik. Arriskua baino gehiago errealitatea zen: hots, jendea, gazteria batez ere (148), fede katolikoa galtzen ari zela. Eta Hiribarrenek behin eta berriz seinalatzen ditu liburuan barrena gaitzaren kutsatzaileak: “gure herritako jakinek”, “gure arteko jakin zenbaitek” (58), hau da, jende ikasia. *Eskaldunak*-en ere maiz dio badirela “guti batzuk”, sinestegabeak edo behar ez bezalakoak. *Eskaraz egia*-ko kapituluaren izenburuetara begiratuz gero, ohargarri da 53 kapituluetatik 10etan “sineste gabe” hitza edo antzekoak ageri dira; bestalde, 8 kapitulu gezurrezko erlijioei buruz dira.

Hedatzen ari zen gaitzaren sendabidea, bortizki erasotzea:

“Garratza izanen zaiote hainitzi mintzaira hau, bainan ezagun detzatela xedeak. Hainitzen harmak ez dire trufa baizik egiaren kontra. Kasko arinek ez dute bertzerik elengatzen. Denbora galtzea liteke heki, gizoni bezala, minzatzea. Beren harmekin izartu ditut, batzuetan hirriz eta bertzetan hitz gordinekin. Sistakoak mingarri atzeman detzakete; bainan jakin dezatela, onek mingarriago baizik ez dituztela atzematzen hekiekin, hain erreki bizi litezkelarik lazo, hertsiki eta beldurrez bizi direnean. Apez bezala gehiago jazarriren derautet: ez dakite zer den apeza! Oro jasan eta iretsi behar ditu, minik ez balitz bezala harentzat!” (153).

Beraz sinestegabeei, Eliza katolikoaren dogmak eta apaizen nagusitasuna arriskuan jartzen ari zirenei edota erlijio guztiak onartzeko modukoak zirela ziotenei ihardesteko eta ihardokitzeko idatzi zuen. Hori gauza berria zen; ildo horretatik etorriko ziren geroago Intxauspe eta M. Elizanbururen liburuak, *Eskualduna* kazeta etab.

Euskaldun irakurleekin elkar aditzea bilatzen du Hiribarrenek, fedearen azalpenean labor eta zorrotz mintzatuz, etsaien kontra hizketa estiloa edo lagunarteko hitzak erabiliz, ironia, trufa eta sarkasmoaz baliatuz, farregarri utziz, are beztuz.

Sarrera eta hiru parte ditu. Sarreran Hirutasun santuari buruzkoa xehatzen du ondorengo hiru parteetan (Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari edo Elizari buruzkoak). Orekatua da orrialde-banaketaz eta pasarte atsegingarriaz. Hiru parteen hasieretan lehen kapituluetan dotrinaren azalpena ematen du, prediku forman, baina alde idor hori irakurgai arin eta atsegingarriagoekin orekatzen daki: I. partean istorioekin; II.ean, erlijioen hasleen egintzekin, III.ean sinestegabe eta besteri zuzendutako alegoria, trufa, solasturia bitxi eta mintzamolde harrigarriekin.

XIX.mendean euskal literaturan hain ohikoa den “onak” eta “tzarrak” dikotomiaz baliatzen da Hiribarren. Esan gabe doa, txarrak dira Frantziako Iraultzaren aldekoak, juduak eta protestanteak. *Eskaldunak*-en “nahastaileak”, “gaixtagin sarea” etab. deitzen ditu (ik. P. Altuna eta al. edizioa 67, 95).

I. partean fede katolikoaren oinarriak zein diren azaltzen du: “lekuko agintza gertatuak, mirakulu ageriak, Kristori agur egin dion mundua, Elizaren iraupena hemezortzi ehun urthez” (VIII). I. Partea). Azalpenaren lagungarri, argumentazio funtzioko 27 istorio labor kontatzen ditu, batzuk serioak, beste batzuk irigarriak (liburuan orotara 36 istorio labor eta zenbait alegoria luze biltzen dira). Aipuak ere franko dira, antzinako klasikoak nahiz modernoagokoak (Seneka, Zizeron, Epitekto, Galiani, Robespierre, Voltaire etab.).

II. Partean Jesusen Jainkotasuna erakusteko, konparatzen du Jesus Buda, Mahoma, Lutero etab.ekin; konparantza hau egitean, Hiribarrenen lumari maltzurkeria, trufa eta mespretxua dario (egun ez duke graziarik): Brahma, “zer putikoa! (58); Buda “kaprestu gabeko aberea” (65); Konfuzio “ximino bat” (69); Mahoma “ez Jainko ez profeta” (78), Koran “buru eta buztan gabea” (78), “ergelkeria dario” (84-85), “Bertzela kilikatzen dituzte bihotzak eta lulluratzen izpirituak Zizeron, Virgilio, Demostenes, Bossuet eta Massillonek” (84). Testuen artean, hunkigarria da Buddak nola tratatu dituen emakumeak erakusten duena (64); deskripzio gogor baten ondoren dio: “Buddak eman du emaztea neskatoak baino areago; Kristok erakusten du handitasun bera dutela gizon eta emazteak, elkarren lagun direla. Buddaren emazteak tetele batzuek dire; Kristorenak, etxeko aingeruak. Buddaren hitz eta egintzek erakusten dute hoberenerat ere gizon bat zela; Kristorenek, Jainko zela.” (66). Egileak bere alde ekartzen ditu Origenes, Tertuliano, Justino, Augustin, Fenelon, Bossuet” (52). Ez du onartzen beste erlijioen zilegitasuna, dogmatikoa da.

Napoleon Iaren fedea gorai patuz hesten du Hiribarrenek II. Partea. Jakina denez, Hiribarren haize alde ibili zen: II. Errepublikaren alde jarri zen 1848an baina laster bilakatu zen bonapartista edo Napoleon III.aren aldekoa. L. L. Bonaparte dialektologoarekin harremanak izan zituen, hari opatu zion *Napoleon Lehena* poeman

(1856) han irakur daiteke: “Mintzo naiz gizon batez higana gorarat, / Beharrez egorria Jaincoak lurrerat, /(...)”. Napoleon I.a autoritate bat zen Hiribarrenentzat: haren aipuak eta istorio laburrak ugariak dira liburuan.

III. partean sinestegabeen erakuspenak zein diren azaltzen du: libertatea (121-122), gozamina bilatzea (122), kontzientzia askatasuna (129). Antropologoen jakintza mesprextatzen du (123), haien kontra mintzaraziz Euler, Leibniz, Kepler, Bossuet, Fenelon, Newton, Malebranche, Descartes, Bacon, Augustin (124), guztiak XIX. mendea baino lehenagokoak. Txarren 10 manamenduak formulatuko ditu (127-128), gero *Eskualduna* kazetak Hiribarreni mailegatuko diona.

Bulunbak deitzen ditu jaun handi eta jakintsu sinestegabe horiek, artaldean bulunba edo joarea darabiltenekin konparatuz, ondotik osteak erakartzen dituztelako. Bai eta *huntzak* “oro ifrentzikaturik edo gaizki zaizkotelako argitan” [Elizaren argitan] (141), hitzaren adiera bikoitzaz baliatuz (‘sineskor’). Ironia eta trufa eta sarkasmoz beteriko kapituluak dira “*Bulunbak*” (XVIII) eta “*Huntzak eta bulunbak*” (XIX) .

Sinestegabe jakintsu ustekoak nolakoak diren deskribatzen du: aberatsak, mundua ikusi dute, ikasiak (abokatu, kazetari, mediku, agronomo..., ikasketa berezidun gehienak sinestegabeak eta Elizaren kontrakoak omen dira), ongi apainduak, gizarte-harremandunak, errazki mintzo dira, besta, komedia eta atsegin guzien zaleak (134-135). Sinestegabea izatea modan zegoela dio, “askok urgulu zoro batez egiten baitute sinestegabearena” (52). Hona pasarte bat, garai hartan Eliza katolikoak gogoko ez zituen jakintsu batzuen deskripzioa egiten duena, haien ideiak eta erlijio katolikoarekiko jarrera maiseatuz, nor diren aipatu gabe (Renan?, Laménais?...):

“Dugun egin Parisera inoko bat, eta entzun dezagun hango eskola emaile handi bat. Kopeta zimurtua du, bixta laburtua; horra non den aldagarri ferde batean hetsia bere bixkar xorrotxa. Hartzen ditu miserak, eta ezartzen dituelarik sudurraren bizkarean, dio: Eliza akhabo da; Jesus gizon bat zen bertzeak bezala! Entzutuen dute hori Paris eta Franziako jaun gaztek, eta onhesten, erranez hek ere Eliza akhabo dela! Nihoiz ez da izan predikari, anaia, serora, othoitz, kobesio, komunione, karitate gehiago; bainan Eliza akhabo da; hala dio nausiak, hala diote aditzailek: Zenbat bulunba!

Bertze nausi bat altxatzen da, kapa urdin bat bizkarretik, zurxuria bezain luzea, bakailoa edo xotxa bezain idorra, mintzoz koloka, xingola lepotik jarian, dioelarik: Ebandelioa behar da ukitu, aphaindu, eman ororentzat on den bezala! Gauza bera adirazten dute aditzalek, eskuak joz eta marrumaz: Katoliko nahi direlarik, jakinak Kristo Jainko dela, eta haren hitz bat baino lehen joanen direla zerua eta lurra: Zenbat bulunba!

Mendia bezalako gizon bat, mustarda gorri, ihurtzuriak bezain larriko orro batekin, hasi da erakusten: ez ditu nihork egin gauzak, berak egin dire! Gauza bera adirazi dute ehun mila hartz bulharrez hantuek. Beraz Murillo gabe egin dire erretabla bortz ehun mila liberakoak, hezkurrik gabe haitzak, aitarik gabe semeak, nolatsu gorringoak haitz azpitan: zenbat bulunba!

Nausi batek erran du, izkiribatu ere: gizonak mekanika dire, maxina bat, haize errotan anaiak, turnabroxen ahaideak, atabal bi aldetarik zilhatuak barnean errotekin, bi zangotako arrain iledun eginak, sorthu direnetik hogoi menderen buruan! Gazte beroek agurtu dute erakuspen hori oihuz, zalapartaka, jauziz, ostikoka, Waterloo guziak ahantzazten zituztelarik gasailan: zenbat bulunba!

Yaun xahar bat, xuriraino irindatua, jabota handi-larri bat paparoan, mantxetak eskumuthurretan, zapatak burlekin, mintzatu da hulatsu: bada izate handi bat, bainan jaun handiegia baita, lo egiten du gauaz eta erregerena egunaz. Arthiki du lurra eremuetan, xori edo untzi gider gabe bat bezala: Gero antola hor! Hori aitzean, franzes jaunen erdiak abiatu dire, xapelak eskuan, ximinoak iduri, itzulika eta jauziz, ezartzen zutelarik ikhuspina buruko alderdi hazkarrean, ahantz beldurrez, eta egiten dute dioakotena, badakitelakotz geroztik Jaincoak ez duela nihortaz axolarik. Lo egiten du, eta arte hartan, badioaz ohointzarrat, ezpatarat, lohikeriarat, piztoleerat, ura behera, pozoatzerat: zenbat bulunba!” (136-138).

Hiribarren apaizaren adimenak ere bazituzkeen bere zalantzak, baina horien aurrean Eliza katoliko ofizialaren aholkua segitu behar dela dio:

“Ene izpirituak hurbil ditu zedarriak, eta denetan ere baditu lanbroak; baina sinesteaz doanean, hedoi guziak behar dire suntsirazi. Eliza ez bada egia, ez da apez beharrik; baina egia bada, nornahik behar du entzun haren errana. Elizak hertsatzen ditu jauirak, galdetzen eginbide zenbait ez dioazkotenak; eta horra zertako dioten ez ditekela gizonentzat. Ez da aski erran dezaten: nola hartu du bada lurrean, nola lehiarazi ditu haurrak bere ganat?” (149).

Ageri denez, *Eskaraz egia* bere garaiaren lekuko da. Gizarte aldakuntza, borroka politiko eta ideologiko, zientzien asmakizunen oihartzunak nabari dira. Maxinak eta balunak aipatzen dira (138). Pentsamendu joera nagusiak espreski edo zeharbidez aipatuak dira (arrazionalismoa, positibismoa, ateismoa, materialismoa, mekanizismoa). Urte haietan argitaratu ziren zenbait intelektual ospetsuren obrak: Jules Simon-en *Le Devoir* etab., Renan-en *Vie de Jésus* (1862), Darwinen Espezieen eboluzioa (1859). Laikotasuna indar hartzen ari zen 1830tik aitzina, eta harekin, antiklerikalismoa; apaizei ausikika ari direla maiz ageri da hala *Eskaldunak*-en (“Apezak”, Altuna eta al. 95) nola *Eskaraz Egia*-n (“Ez naiz mintzatu azken erregearen hertzeaz azken apheza urkhatu nahi zukenaz. Badut hura gabe aski (...)” 127). Liburua argitaratu eta laster, Elizaren erreakzioa nabaritu zen, Lurdesko erromesaldiekin (1862tik aitzina), Quanta cura enziklika eta haren Syllabus eranskinarekin (1864) eta Vaticano Eliz Batzar Nagusiarekin (1869-1870). Laborarien pisua –katolikoaren oinarri soziala– gutxituz joango da hirietako burgesiaren onetan. Irakuntza publikoa zabalduko da, eta 1872z geroztik bortxazko soldadogoa ezarriko.

Eskaraz egia Napoleon III.aren eta Frantziako Elizaren arteko ezialdian idatzia eta argitaratua da; garai hartan Eliza katoliko zinez hazi zen. J. Intxaustik dioenez, “inperioaren edergailutzat behar zuen Eliza Napoleon III.ak” (Intxausti:1972:24). Hain zuzen, hurren urtean, Erromako auziarekin, enperadorearen eta Eliza katolikoaren harreman onak hautsi ziren. Fedea eta aurrerapena binomioaren aurrean, “katolikoek ez zuten behar zen zientzia prestaerarik” (ib. 29), “Jakitatez urri eta mirakuluz (sic) oparo bizi zen Elizak ez zuen erarik gizarte-giro berri haretan murgiltzeko.” (ib.).

I.2. Hizkuntza eta estiloaz

Gaiak eta tonuak irakurleak ulertzeko moduan eta garratzki mintzatzea galde egiten zion Hiribarreni. Horregatik, beharbada, liburu honek ez ditu *Eskaldunak*-eko hizkuntza-ezaugarri asko, bereziak edo agramatikalak direnak; batzuk liburu honetan noizean behin baizik ez dira ageri: esaterako, artikulua ezabatzea (“Ez du eskas ahal eta argi” 41).

Hala ere, Hiribarrenen prosa zaildu egiten du zenbait joskerak (aposizio erlatibozkoetan, inversio, hiperbaton), noizbehinka ageri direnak. Adib., “etxe bi alde direnak erortzen dire” 110; “Gizonek sobera eskas zuten maitarazteko bere buruen” 94; “hari erakusteko gure amodioa lehenbiziko eta hoberen aitari bezala” 34). Eta batez ere haren hiztegi garbi (hitz teknikoak ere euskal errokoak), jori (izen, adjektibo, lokuzio) eta bereziak (hitz bakanak edo asmatuak ugari dira, DGV-OEHn haren adibideak baizik ez baitira ageri, adib. elengatu ‘ulertu’). Haren prosa berezia da: euskara dudarik gabe oso iturri onekoa du, tradiziokoa, herriaren ahokoa, aberatsa (oroit hiztegi bat egin zuela), apaina eta irudiz betea.

Prosa erretorikoa da liburu honetakoa. Tonuak (garratza, irrigarria) eta formatoak (predikuak edo azalpenak eta kontakizunak) aldizkatzen dakiena. Formato horietako bakoitzak bere gisako esaldi-taxuketa eta erritmoa du. Tresneria erretoriko aberatsa erakusten du: anplifikazioa, akumulazioa eta errepikapena (antitesia, sinonimia, paralelismoa, anafora, epifonema), irudiak (konparazioak, alegoriak (129-133, 145-146, 149-151), dialogismoa edo alegiazko hizketak.

Bariazioa dago egituretan eta hiztegian (hizkuntza-maila gorakoak, hitz tekniko euskal errokoak, lagunarteko mailakoak edo hitz konnotatiboak). Prediku edo azalpenetan lehenik sententzia bat edo bizpahiru esaldi eta ondoren 3-4 uhin zati parelelistiko, bertsolerroak bezalakoak, joskeraz eta silaba kopuruz berdintsuak. Erritmo bizia eta latza ageri da prediku edo azalpenotan: paragrafo luzea eta esaldi laburrak, perpaus juntatuak (batzuetan juntagailu gabe) eta mendeko perpaus gutxi, galderak zirt-zart etengabe. Laburtasuna eta sententzia estiloa dira ezaugarri nagusiak. Baina bestalde konparazioetan hedatua da eta hitz-jario harrigarrikoa ere bai.

Estilo landua eta ahozkoa elkartzen ditu Hiribarrenek. Uste dugu liburu honetako tonuak eta estiloak izan duela eraginik: esaterako, Manex Hiriart-Urrutiren artikuluetan (laburtasuna, sententzia estiloa, artikulua ezabatzea, inversio eta hiperbatonak...).

Ondorioz, uste dugu *Eskaraz egia* balio handiko liburua dela lekuko gisa, euskara ederragatik, istorio ugariengatik, are hitz eta joskeraz batzuen bitxitasunagatik. Berrargitaratzea merezi du.

II. Erran zahar eta aforismoez

II.1. Hiribarrenek erran zahar eta aforismo ugari idatzi zituen, baina ez argitaratu. Haren eskuko izkribuak gugana heldu dira, zorionez. Lhande (1928:394-405; 1929:81-95) eta Lafitte (1979:181-191) jaso zituzten eta haien berri eman. Lhandek dio hiru kaier (“carnet”) zirela: 1) “Laborarien erran zaharrak”. 2) “Aphorismes hygiéniques”. 3) “Aphorismes proverbiaux et aphorismes sapientiaux”. Lafittek ordea, ez du aipatzen “Aphorismes sapientiaux” izenkorik, eta Lafitteren bilduma heldu baita Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara, guk ere ez dugu ikusi, nahiz zehatzago aztertu behar dugun kontu hau.

Lhandek bi multzo argitara zituen, erranak hautatuz: “Proverbes sapientiaux” direlakoetatik 121, “Erran zahar” edo “Aphorismes proverbiaux” direlakoetatik 169. Orotara 290. Ez zuen gehiago publikatu, nahiz segitzea hitzeman zuen (“À suivre”); agian egunen batez publikatu zituela idatzi zuen. Lhanderen edizio partzial honek zuzentzen ditu Hiribarrenen huts batzuk, frantses testukokoak, baina ez du frantsesezko itzulpena beti osorik ematen; eta euskarazko testua jasotzerakoan ere huts zenbait egiten ditu (hark edo *Gure Herria* aldizkariak).

Hiribarrenen eskuizkribuak Lhanderegandik Lafitteren eskuetara pasatu ziren eta hark ere laburki deskribatzen ditu: bi kaier zirela (ez hiru): 1) “Laborarien erran zaharrak”, 127 or. 2) Higiene-aforismoak eta “Erran zaharrak” edo “Aphorismes proverbiaux”. Lafitteren ondarea Aita Andiazabalen eskuetaratu zen gero eta, honek utzita, Hiribarrenen eskuizkribuen kopia bat iritsi da Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekara. Han ezagutu ditut nik ere Lafittek esandako bi multzoak. Lehen multzoa: “Laborarien erran zaharrak” edo “Proverbes agricoles” bilduma. Hau 71. orrialdera arte zenbatua da (ez dakit nork, Hiribarrenek ala besteren batek) eta handik aitzina orrialdeak zenbatu gabe daude (beste 58, azken biak hutsik). Orotara, 129 or., 700 bat erran zahar inguru.

Bigarren multzoak hiru osagai ditu: 1) *Médecin* izenburuko sarrera: 8 orrialdeko sarrera hitz laxoz, tarteka aforismo batzuk dituela; ondoren hiru orri, hitz lauuko sarrera horretako gauza berak dauzkana hitz neurtuz: 31 aforismo (azkena, frantses itzulpenarekin). Lafittek dioenez, medikuntzaren kontrako panfletoa da. Medikuen inutiltasuna eta haien materialismoa azpimarratzen du, aipu ugari ekarriz (118. salmoa, Hipokrates, Bacon, Montaigne, Molière, Morizin, Léon Simon, Frappart, Broussain, Fontenelu, Droz, Boerhave, Dumoulin, Broussain). “Nos medecins, avec leur anathomie pathologique, sont devenus matérialistes; ils ne s’occupent que des phénomènes de décomposition, de putréfaction & de morte, c’est-à-dire que’ils ne voient que la science du cadavre.” (3). 2) Higiene-aforismoak (“Aphorismes hygiéniques”), frantses

itzulpenarekin: lehenik 133 aforismo, egileak berak zenbatuak, eta itzulpenarekin. Gero beste sail bat: 100dik gora, Salernoko eskolakoak omen direnak (egilearen arabera); horietako azkenak errima bereko bertso-lerro sail luzeak –badira 48 bertso-lerrodunak–, zenbatzen zailak. 3) “Erran zaharrak” edo “Aphorismes proverbiaux”: lehenik 16, gero erranak nahiz lokuzioak nahasteka. Orotara, 331. Bigarren multzo osoak orotara baditu 600 bat aforismo, erran zahar eta lokuzioak barne.

Beraz oro hartuz bi multzoetan badira 1300, erran zahar eta aforismoen artean. Esan behar da aski zaila dela askotan Hiribarrenen letra ulertzea.

II.2. Aforismo gehien-gehienak ustez Hiribarrenek beraz sortuak dira, dituzten zirriborro eta zuzenketengatik. Lhandek uste zuen Hiribarrenek asmatuak zirela. Baina “erran zahar” edo “aphorismes proverbiaux” edo erran zuhurretan ez dira gutxi atsotitzak –hau da, herriak ezagutzen eta erabiltzen dituenak- edo atsotitzen aldaerak, espresioa aldatuz sortuak, edo bi atsotitz elkartuz, edo nahastuz.

Lhanderen arabera, haien balio folklorikoa ez da handia, egileak asmatuak edo aldatuak direnez gero, baina interesgarriak eta gozagarriak omen dira adierazkera aldetik, hainbat kualitate erakusten baitituzte (apaintasuna, laburtasuna, inversioak, aliterazioak...). Frantses itzulpena bitxia eta barrokoa dutela dio, poesia balioan urriak direla eta egileak askoz hobeki idazten zuela euskaraz frantsesez baino (1928:394).

Hiribarrenen erran eta aforismoak ez daude atsotitz bildumetan, ezta Lhandek argitaratuak. Azkuek, Lhanderi jarraituz, aipatu baizik ez ditu egiten (EY III:24) eta Garatek ere ez ditu sartu bere bilduman. Izan ere, halakoak sasi-atsotitzat hartuak izan ohi dira (nahiz, zenbait, erabiliaren erabiliz, atsotitz bihurtu diren beste hizkuntzetan). Dena dela, kontua berraztertu beharko litzateke. Adibideetan ikus dezakegu atsotitzen oso antzekoak direla. Batzuk, beste hizkuntzetan oso erabiliak direnen itzulpenak dira (ez ote atsotitzak ere?): Bide guziek Erromarat eramaten, edo Zaldi urrikako, krapestu nola nahiko. À cheval donné ne regarde pas la bride. Bata ez beste ez dira ageri Garateren bilduman).

Uste dugu Hiribarrenen aforismoak eta erran zaharrak beste ikuspuntu batetik aztertu behar direla, kontuan hartuz zer den aforismoa (sententzia labur eta dotrinala, zientzia edo arlo jakin bati aplikatzekoa); nola jakintsuek, filosofoek eta idazleek aforismoak sortu dituzten (erretorika liburuetan, aforismoen ereduen artean Hipokrates eta Salernoko eskola aipatzen dira, eta hain zuzen haienak moldatzen ditu euskaraz Hiribarrenek); nola irakaskuntzan erabiliak izan diren aforismoak eta adagioak (eta uste dut horretan tradizioa egon dela Frantzian). Eta hori ekarri du euskarara Hiribarrenek.

Hona erakusburu batzuk :

(Laborarien erran zaharrak)

Hotz ez dena bero, / Gauzek bere aro.

Lehen hala, / Orain hola.

On ez dena batzuentzat / Hauta bertzentzat (sic)!

Urte uritsu, lastotsu.

(Higiene-aforismoak)

Mediku gutiago, / Gaitza bakhanago.

Burua fresko, sabela arin, zangoak bero, / Midikuez trufa gero.

Hainitz mirikuk ez sinhesten badela arimarik, / Ez dute beraz arthatzen aberezt bertzerik.

Orhoituz zein den mirikuentzat gaitzen ithurria, / Mirikuntza da higuingarri bezain ahalkagarria.

Siesta higuin eguerditan, / gernu eta haize utz airetan.

Guti jan arratsetan / Loaren onetan.

Hobe dieta / Ezen ez lanzeta.

Udare erria hoberena, / Gordinik tzarrena, / Errerik barneco eztieta / gordinik garratzena.

Janari ona gerezia, / Behiti doha guzia, / Hexurrak khentzen harria, / Urak gorphutzean hedatzen bizia.

(Erran zaharrak)

Zuhurrek argi galdegiten, / Zoroek ematen.

Kartazko jauregi. Château de cartes: maison fragile.

Dantza has. Comencer la danse: l'attaquer.

Haize alde ibil. Naviguer selon le vent qu'il fait: s'accommoder au temps.

Mihia zilhatu zaio. La langue lui a fourché: il a lâché une parole contre son intention.

Horma utz. Rompre la glace: parler.

Bihotza nolako, mihia halako. [G Bihotzak zer dioen ere, mihia mintzo; Bihotzaren giltza, mihia; Mihia, bihotzaren mandataria, Mihia bihotzaren salatari].

Mihian bihotza ageri.

Ixiltasun, zuhurtasun. Le silence est la sagesse.

Hitz ona errex eta aberats.

Zuzenegi, laster makhurregi. Trop de justice dégénère en injustice.

Bizitzeko, utz bizitzera. Pour vivre, laisse vivre.

Bide guziek Erromarat eramaten. Tout chemin conduit à Rome.

Bilha ongia, igurik gaizkia. Le bien il faut la chercher, et le mal il faut l'attendre.

Zaldi urrikako, krapestu nola nahiko. À cheval donné ne regarde pas la bride. [Ez G].

Maite duena Bertrantto, / Maite haren xakhurtto. Qui aime petit Bertrand / Aussi son petit chien. [ez G].

Oro deus ez. Tout est vanité.

Nahiak ahal ematen. Le vouloir fait le pouvoir.

Jainkoak laguntzen dena haritzen. Aide-toi, Dieu t'aidera.

Akhabantzak lana koroatu. La fin couronne l'oeuvre.

(Erran zuhurrak edo Aphorismes sapientiaux")

Hobe haurrak egun egitea nigar / Ezen ez zuk bihar.

Ura suari / eztitasun kolerari.

Zaldi iduriko da zikhoitza; eramaile arno eta edale huts hutsa.

Mintza gehiago zurekin / ezen ez bertzeekin.

Zuhur litezke asko / ez balire bere buruaz hartusko.

Ondorioz, uste dut Hiribarrenen erran zahar eta aforismoek merezi dutela aztertuak eta argitaratuak izatea. Merezi du Hiribarrenek, haren sorterri Azkainek eta Euskal Herriak.

BIBLIOGRAFIA

Altuna, P. et al. 1997. *J. M. Hiribarren. Eskaldunak (2. zatia)*. Donostia: EEE.

Azkue, R.M. 1969. *Euskalerraren Yakintza-Literatura popular del País Vasco*. III. Madrid: Espasa-Calpe.

Garate. 27173. *Atsotitzak. Refranes. Proverbes. Proverbia*. BBK Fundazioa. 1998.

Intxausti, J. 1972. *Iraultzaren hildotik*. Jakin.

Lafitte, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona: Le Livre.

1979. "Jean-Martin de Hiribarren" (1810-1866)". Euskera 1979, 181-191.

- Lhande, P. 1928. "Les proverbes d'Hiribarren". *Gure Herri*, VIII, 1928, 394-405; 1929, 81-93.
- Mitxelena, L. 1988. *Historia de la literatura vasca*. (2. ediz.).
- Mujika, L. M. 1979. *Historia de la literatura euskérica*. Donostia: L. Haranburu.
- Onaindia, S. 1973. *Euskal literatura*. II. Bilbao: Etor.
- Sarasola, I. 1970. *Euskal literaturaren Historia*. Zarautz: Lur.
- Urkizu, P. (dir.) eta al.. 2000. *Historia de la literatura vasca*. Madrid: UNED Ediciones.
- Villasante, L. 1979. *Historia de la Literatura Vasca*. (2. ediz.). Editorial Aranzazu.

LABURDURAK:

E: *Eskaldunak* (Baiona: Foret eta Lasserre, 1853). Ik. Bibliografian Altuna eta al.

EE: *Eskaraz egia* (Baiona: Lasserre, 1858).

G: Garate, G. Ik. Bibliografia.